# XEDAPEN OROKORRAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 778

*AGINDUA, 2016ko otsailaren 12koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak kudeatutako izaera pertsonaleko datuen fitxategi automatizatuak eta automatizatu gabeak arautzen dituen Agindua.*

2015eko martxoaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman zen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko otsailaren 25eko Agindua, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak kudeatutako izaera pertsonaleko datuen fitxategi automatizatuak eta automatizatu gabeak arautzen dituena. Agindu horren II. eranskinean, ezabatzen diren fitxategiak jasotzen dira, baina ez da aipatzen haiekin zer egingo den ez eta zergatik ezabatzen diren ere, eta hala beharko luke, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Hori dela-eta, 20. artikuluan ezarritakoa betetzeko, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Aldatzen da Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko otsailaren 25eko Aginduaren II. eranskina. Agindu horren bidez, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak kudeatutako izaera pertsonaleko datuen fitxategi automatizatuak eta automatizatu gabeak arautzen dira. Honela idatzita geratzen da:

«II. Eranskina, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak kudeatutako izaera pertsonaleko datuen fitxategi automatizatuak arautzen dituen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren Aginduarena.

1.– Fitxategia

| | |
|---|---|
| Fitxategiaren izena | Instalazio erradioaktiboak. |
| DBAko inskripzio-kodea | 2130590007 |
| Ezabatzeko arrazoiak | Fitxategian bildutako datuak Segurtasun Nuklearreko Kontseiluarenak dira. Hala jaso zen 2013ko ekitaldian egindako auditoria-txostenean. |
| Destinoa | Fitxategia ezabatzea |

2.– Fitxategia

| | |
|---|---|
| Fitxategiaren izena | Berrikuntza Ekitaldiak |
| DBAko inskripzio-kodea | 2130590017 |
| Ezabatzeko arrazoiak | Sailak ez du inoiz berrikuntza-ekitaldirik egin. Hala jaso zen 2013ko ekitaldian egindako auditoria-txostenean. |
| Destinoa | Fitxategia ezabatzea |

3.– Fitxategia

| | |
|---|---|
| Fitxategiaren izena | Turismoaren ordenamendurako harremanak |
| DBAko inskripzio-kodea | 2130590027 |
| Ezabatzeko arrazoiak | Fitxategi horretako datuak Datuak Babesteko Euskal Agentziaren fitxategi batean sartu dira, zehazki Sailaren Kontaktuak Kudeatzea izenekoan, 2130590028 inskripzio-kodearekin. |
| Destinoa | Beste fitxategi batean sartzea |

4.– Fitxategia

| | |
|---|---|
| Fitxategiaren izena | Lehenengo Esne Erosleen abalen erregistroa |
| DBAko inskripzio-kodea | 2080850014 |
| Ezabatzeko arrazoiak | Fitxategi honek ez zuen inoiz inolako daturik izan, lehenengo esne-erosleek ez baitzuten sekula abalik jarri. Araudi-aldaketa dela eta, ezinezkoa da aurrerago halakorik gertatzea. |
| Destinoa | Fitxategia ezabatzea |

5.– Fitxategia

| | |
|---|---|
| Fitxategiaren izena | Hotz-tangak |
| DBAko inskripzio-kodea | 2060730008 |
| Ezabatzeko arrazoiak | Nekazaritza Bermerako Espainiako Funtsa (FEGA) da datuen jabea, eta erabiltzaileek, datuak kontsultatu eta mantendu nahi izanez gero, web-orriko «Letra Q» aplikazioren bidez egin dezakete. |
| Destinoa | Fitxategia ezabatzea |

6.– Fitxategia

| | |
|---|---|
| Fitxategiaren izena | Esne-operatzaileen erregistroa |
| DBAko inskripzio-kodea | 2060730006 |
| Ezabatzeko arrazoiak | Araudian izandako aldaketak direla eta, fitxategi honetako datuak Datuak Babesteko Euskal Agentziaren fitxategi batean sartu dira, zehazki Baimendutako Erosleen Erregistroa (RECAE) izenekoan, 2080850017 inskripzio-kodearekin. |
| Destinoa | Beste fitxategi batean sartzea |

»

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailaren 12a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.